


## Jabier Agirre Lasarte

Medikua eta ekintzailea



ARG.: Iñigo Ibañez

*“Euskarak eduki dezala behar eta merezi duen lekua; horren lekuko izan nahiko nuke”*

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Jabier Agirre Lasartek (Donostia, 1952) jaso du aurten Elhuyar Fundazioaren patronatuak ematen duen Merezimendu Saria. Hain zuzen, euskaren normalizazioan eta zientzia eta teknologiaren dibulgazioan nabarmendu diren pertsonak omentzeko helburua du sari horrek; beraz, ondo merezita eman diote Agirre-ri. Pozik eta esker onez jaso du, eta bere ibilbidean bi arlo horietan, hizkuntzaren normalizazioan eta dibulgazioan, egingdako lana gogora ekartzeko aukera eman dio. Bide batez, oraindik bete ez duen ametsa aitortu du: euskarak eduki dezala Espainian gaztelaniak duen maila, eta Frantzia frantsesak duena.

---

## Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Txiki-txikitatik argi izan dut medikua izan nahi nuela. Gure etxean, osaba Jabier medikua zen, eta nik miretsi egiten nuen nola bizi zuen bere lana. Pediatra zen, ospitalean ere aritzen zen, baina niri gustatzen zitzaidana zen etxean egiten zuen lana. Oso gertuko tratua zuen gaixoekin, oso hurbilekoa, eta huraxe izan zen niretzat eredu.

Hala, medikuntza ikasten hasi nintzen, eta txundituta geratu nintzen genetikarekin. Karreran oso gutxi ikasi genuen arlo hori; artean ez zegoen oso garatuta. Baina osabak ere, aurreko belaunaldikoa zen arren, interes handia zuen genetikari. Garai hartan hasi ginen jaio aurretiko diagnostikorako proba genetikoak egiten, Down sindromea zutenekin zer gertatzen ote zen aztertzen... Geroztik, 40 urte hauetan, gezurra dirudi zer jauzi ikaragarria egin duen genetikak. Nik ez dut sekula praktikatu puntako medikuntza hori, genoma editatzeko dauden teknika horiek eta abar. Baina izugarritzak iruditzen zait ekarri duen aurrerapena. Oraingo txerto hauekin ere, sinestezina da zer lortu duten!

## Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke?

Esan bezala, osabarengandik jaso nuen gaixoei hurbileko tratua emateko gogoia, eta, horrekin batera, beti saiatu izan naiz gauzak ahalik eta ondoen azaltzen; ez bakarrik gaixoei, baita ingurukoei ere. Egin kontu: nik ezagutu dut medikuei berorika hitz egitea. Medikuei haiek aginduak ematen zituzten, baina nik, eta nik bezala nire inguruko beste batzuek, beste era bateko harremana izan nahi genuen. Gaixoa-  
ren ondoan egon nahi izan dugu, ez haren gainetik. Eta hor beti sartzen da euskara tartean.

Hasieran, agian ez zegoen hainbeste jende euskaraz ondo hitz egiteko medikuntza-gaiez, baina irratian hasi nintzen —sekulako ausardiarekin, beste bi lagunekin batera—, ikusi nuen bazegoela horretarako prest zegoen jendea. Orduan, nik erakundeen aldetik laguntza handiagoa espero nuen, eta izan da oso deseinganu handia ikustea nola ez duten aldeko ezer egin. Alderantziz, oztopoak baino ez dituzte jarri. Ikusi besterik ez dago nola aurreratu duen hizkuntzak beste arlo batzuetan, eta zer gutxi medikuntzan. Pentsa, oraindik ezin dira unibertsi-tateko ikasketak osorik euskaraz egin.

Osasun-administrazioan euskara aurrera eramateko ahaleginean, Iñigo Jaka Arrizabalaga Gurutzetako ospitaleko zuzendariaren bultzada aipatu behar dut. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak sortu genuen, guztiz boluntarioa, eta ordutik lanean ibili gara beste talde batzuekin batera, tartean Elhuyar, eta ez dugu lortu nahi genuenaren erdia ere. Bakarrik eskatzen dugu euskarak eduki dezala behar eta merzei duen lekua: Hegoaldean gaztelaniaren maila eta Iparraldean frantsesarena. Horren lekuko izan nahiko nuke, baina ez naiz oso baikorra. ●